

IÑAKI ARRUTI LANDA

Soineko zuriz jantzia. Hala nator ni artikulu hau idaztera, zurikeriatan ibili gura barik, baina soineko, bandera, zuria jantzita.

Hermes aldizkariak, Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak ere bai, Bizkaira naramate. Eta hara non, hizkuntza-politikaz idazteko Bizkaitik egindako deiak Bizkaiari hizkuntza-politika aldatzeko deia egitera bultzatu nau ni ere. Bultzatu, ordea, bultzaka ibili gabe, gipuzkoarkeriarik gabe, alderdikieriarik gabe, euskalgintzakeriarik gabe. Ustez, hizkuntza indarberritzeak eskatzen duen ideien logikatik.

Zurikeria balirudike ere, ozen diot maite dudala nik Bizkaia. Aita hangoa nuen, emaztea ere halakoa dut, bizkaitarra. Ikasketak han ere egin nituen, eta, ikastolako ia gelakide guztiei aurre eginez, zuri-gorria ere banaiz, txiki-txikitatik. Soineko zuriz jantzita, beraz.

Lirain, sendo, eder? Ados egongo gara denok ez dugula euskara horrela ikusten baieztatzerakoan. Ez Bizkaian eta ez gainerako herrialdeetan ere. Orduan zer, astun, ahul eta itsusi?

Ez naiz ni ikuspegi ezkorrekkoa eta are gutxiago hizkuntza-kontuetan ezkortasuna elikatzekoa. Baikortasun kritikoan sentitzen naiz eroso, besteak beste, hala sentitzen dudalako gaia, baikor eta kritiko. Kritiko eta baikor.

BIZKAIA MAITE

Atzo goizean ikusi zintudan. Pentsatzen dut azken 50 urte hauetan herri honek euskararen herria berregiten egin duena ikaragarria izan dela. Ikaragarria bai handitasunari eta baita ere eginkizun zuenaren zailtasunari dagokionez. Aritu ahala jabetu gara zein zaila zen eta zein zaila jarraitzen duen izaten hizkuntza bat, hizkuntza-komunitate bat, berrosatzea, osatzea kopuruz eta osatzea osasunez. Eta hizkuntzen bizitzaren tempusean, 50 urte atzo da. Horregatik ere, banaiz baikor.

Ikaragarriaz gain, ordea, eredugarria ere badela pentsatzen duenetakoa naiz ni. Gaur egungo Europaren testuinguruan, estaturik gabeko hizkuntzak galbahetik pasaz gero, uste dut gurea badela eredu on bat; bereziki, izateko nahian oinarrituz, errealitatea eraldatzeko ekintzari eta energiari dagokionez. Makina erremintaren sektorean esportatzaileak gara. Hizkuntza indarberritzeko egitasmoetan ere izan gintezkeen.

Ez da hau tokia ondo egindako guztiak loriatuz (ikastolak, euskararen estandarizazioa, helduen euskalduntzea...) mami gozotan ase sentitzekoa. Horiek hor daude, eta asko eta egia handiak dira. Baina euskaraz normal bizitzeko gose denak tripa-zorriak ditu. Tripa-zorriak ditu, minutako esnetan morokila bezala, jangaitz sentitzen ditugulako egun Justizian, Ertzaintzan, EITBn, kirolean edo, adibidez, lagunarte eta familia euskaldun askotan dauzkagun praktika linguistikoak.

Horietatik bi aipatzearren, bat, Lekeitioko D ereduko ikasleei Legebiltzarreko harrerako ertzainekin aurten gertatutakoa da. 40 urte igaro eta gero, eta non eta Legebiltzarrean, "en castellano, por favor" eskatu ertzainak gazteei, sailburuak gaiari buruz legebiltzarrean esan behar zituenak esan ez eta esan behar ez zituenak esan, eta ez da ezer gehiago pasa. Bapo. Uste dut linguistikoki herri honetan gertatzen ari denaren adibide on bat dela. Eredua oso txarra, baina adibidea oso ona.

Bestea, Mari Karmen eta Elixabete Garmendiari Berrian (2017/07/30) egindako elkarrizketan, Elixabetek berak dioena ETBri buruz: "ETBk gaur erreferentzialtasuna Espainian jarrita dauka. Telebista akonplejatu bat da. 30 urteotan ETBn egon diren buru gehienak izan dira euskal mundua interesatu ez, eta gutxiesten zutenak". Pentsatzen dut euskaltzalea denak Elixabeten esana kontuan izango duela. Izan ere, sinesgarritasuna duenak badu eta ez duenak, berriz, horixe du, falta.

ESKOLAK BAKARRIK EZIN DU

Hiztun asko, gehiegi, ditugu herren. Aurreko belaunaldietako asko, gaztelaniaz eskolatzea behartu zituztelako. Belaunaldi berrietako gehiago, berriz, euskaraz eskolan soilik egiten dutelako. Herren gaude kontzientziaz (motibazioz), herren konpetentziaz (gaitasunez) edota herren koherentziaz (erabileraz). Eta gainera, normala da! Normak, arauak, ohikoa izan denak, inertzia sortarazten duenak, horretara bultzatzen gaituelako.

Labur esan beharraz hala esanda, esango nuke ia denok ados gaudela ikastolatetik hasi eta D ereduak hezkuntza-sistema

guztian izan duen hedapenari esker, belaualdi berrietan izan den euskarazko gaitasunaren hedapena dela azken hamarkadetako lorpenik handienetakoa. Garrantzitsua oso, zerbait garrantzitsua izan bada.

Hori esanda, esango nuke, baita ere, gaur giltza nagusia ez dagoela eskolan, eskolaz kanpo baizik. Esan bakarrik ez, teoriak, ikerketak eta praktikak dauzkagu hori berresten digutenak. Hemen, han eta Irlandan. Ezinezkoa da elebidun gutxi-gehiago orekatuak osatzea eskolarekin soilik. Eta ez nabil gaztetxoei aisialdian (udaleku batzuk...) euskaraz ere aritzeko aukera emateaz, ez. Esan nahi dudana da logika linguistiko oso sendoa duela, adibidez, hiru probintzietako 16 urtez azpikoen eskola-orduz kanpoko jarduera guztiak sistematikoki euskaraz izatearen beharrak. Urgentziak? Gaur ez bada bihar eta bihar ez bada etzi, baina horretara eramango gaituen neurri sozial eta legal sorta programatu bat mahai gainean jarrita behar genuen aspaldi, eta esan bai, baina ez daukagu.

ITSASONTZIA SALBATZEA LORTU DA. EGINDAKO BIDAIA IKARAGARRIA IZAN DA. EREDUGARRIA ESAN DUGU LEHEN. PORTURA EKARTZEA LORTU DUGU, BAINA ITSASO ZABALEAN ARITZEKO, GAUR (ITSASOKO BALDINTZAK ERE ALDATU BAITIRA), BESTE OSAGAI BATZUK BEHAR DITU, BESTE DIMENTSIO BAT, BESTE MOTOR BAT...

Zenbat milaka gaztetxo bizkaitar ari gara euskarazko gaitasunean herren bilakatzen, hezkuntza-sistemak hiztun osoak ekoitzi nahian eta ezinean 30 urtetik gora daramatzanean eta, besteak beste, eskola-orduz kanpoko jarduera gehienak (kirola bereziki) sistematikoki gaztelaniaz ematen ari garenean?

EUSKALGINTZAK BAKARRIK EZIN DU

Eta eskolari pasatzen zaionaren antzekoa pasatzen zaio/zaigu euskalgintzari ere. Gizarte-izaerakoari eta instituzionalari, bie. Ofizio, afizio eta lagun estimatuz josita ditudan euskalgintzek dute ezin hori, diot, soineko zuriz jantzita.

Itsasontzia salbatzea lortu da. Egindako bidaia ikaragarria izan da. Eredugarria esan dugu lehen. Portura ekartzea lortu dugu, baina itsaso zabalean aritzeko, gaur (itsasoko baldintzak ere aldatu baitira), beste osagai batzuk behar ditu, beste dimentsio bat, beste motor bat...

Hasteko, eta bada nor hori esateko, Mikel Zalbidek berak dio (BAT aldizkaria, 100. alea) paradigmaz aldatu behar dugula, "lehendabizi ikasi, gero egin" paradigmatik, "eginez ikasi" formulaziora.

Atrebentzia ametitzen bazait, "Egin eta, besteak beste, ikasi ere egingo dugu" esamoldea ateratzen zait niri. Izan ere, eskolan bezala, gainerako eremuetan ere (administrazioa kasu), helburua gaitasunean jartzen badugu ("ikasi"), erabilera ez da etorriko. Erabilera behar du abiapuntu eta helburu, eta orduan, besteak beste, seguru gaitasuna ere e(ra)karriko duela (gero eta gehiago eta gero eta hobea).

Mikelek eskolarako dioena Miren Dobaranek ere badio hizkuntza-politikari eta administrazioko hizkuntza-eskakizunei dagokienez, "Erabilera klabea gaude gu" dioenean (Berria, 2017-06-24).

ESTATU(S) GAIA

Mikelek eskolarako eta Mirenek euskalgintzarako dioten hori, ordea, itsasontzi handia da oso. Handia da, handi egin delako, dugulako. Eskolaren mugak, ertzak, aspaldi marruskatu zituen euskarak, eta urmeen kontua izateari uzteko garaia heldu zaio. Helduon kontua (ardura, erantzukizuna...) bilakatu behar dugu. Gaur hobe bihar baino.

Euskara ez da gu ez garen ia ezer. Utzi beharko genioke euskara gugandik kanpo dagoen zera (inportante, sinboliko...) hori modura ikusteari. Joxe Azurmendik dioen

modura (Administrazioan euskaraz aldizkaria, 74. zenbakia, IVAP-HAEE) "euskara euskaldunen komunitatea da; euskalduna, komunitate horri buruz positiboki posizionatzen dena". Gu alegia, pertsonak.

Eta Euskaltzaindiak eskatuta idazten ari banaiz ere, lizentzia hartuko dut esateko uste dudala gure itsasontzi hau okertuta darماغula aspalditik. Bodegetan pisu gehiegi darama corpusaren kargak (hizkuntzaren barne-ezaugarriek), itsasontziaren motorra estatusa denean (hizkuntzaren gizarte-ezaugarriak: pertsonak eta komunitatea). Beti pentsatu dut hala, eta hemen ere hala esatea dagokit. Adibideak besterik ez diren hiru:

Bat, sinplea oso. Abizenaren grafia eta apenas erabiltzen duen ez dakit zein hitzen idazkera zuzenak (corpusak) bere hizkuntza-praktikak (statusak) baino gehiago arduratzen du herritar asko, gehiegi. Ez dut uste seinale ona denik.

Bi, unibertsitatean ere, filologiak (corpusak) bereganatu ditu soziologiak, antropologiak eta antzekoek (statusak) gidatu beharko lituzketen hizkuntza-kontuak... EHUren hizkuntza-arlo nagusia, nire uste apalean, hizkuntzaren egoera soziala eta egoera hori hobetzeko egiten dena eta egin beharko litzatekeena irakastea eta ikertzea litzateke (esportatzeraino) eta, ia 40 urteren buruan, esango nuke ez duela inongo proportzionaltasunik arlo horretan unibertsitatean egiten ari denak euskal gizartea bera (nazioarteko testuinguruan ere) gaiaren inguruan egiten ari den ahaleginarekin.

Hiru, itzulpengintzak euskara lan-hizkuntza bihurtzeko lagungarri beharko luke eta ez ordeko. Uste dut administrazio (are gehiago enpresa...) gehiegitan helburu bihurtzen ari dela gaztelaniaz lan egitea eta itxurak mantentzeko itzuli behar dena itzultzea. Gordina da esatea, baina euskarari "estatus" hori ematea helburutzat badarabilgu, ez gabiltza ongi. Begira dezala bakoitzak bere "etxe" barrura eta azter dezala, lagin txiki-txiki bat hartuta, nola idazten (eta erakusten) diren urteak joan eta urteak etorri, adibidez, aktak.

Eta handia denez, estatus gaia izateaz gain, estatu gaia ere bada. Izatera iritsi behar du. Alegia, gai honek euskalgintzaren

eremutik haratago joan behar du. Iritsi behar du herritar kopuru handiagoetara eta iritsi behar du, euskalgintzatik haratago, botere-gune handiagoetara. Adibidez, lehendakariaren mahai gainera. Adibidez, Bizkaiko ahaldun nagusiarengana. Adibidez, Bilboko alkatearengana.

Norbaitek esango dit orain ere bada-goela gaia mahai horietan. Hala egongo dela uste dut nik ere, baina baita ere uste dut egon behar duela desberdin: paradigma berriekin, erabileran autozentratuta, zeharlerrotasuna praktikatuz, lehentasun handiagoarekin, konplexurik gabe...

Lehendakaria lehendabizi eta botere-guneetan daudenak ondoren, behar ditugu *Ahobizi* bilakatu. Alegia, euren mintzajardun propiotik hasiz eta gobernatzan dituzten erakundeetako hizkuntza-praktikekin jarraituz, subsidiaritate printzipioa aplikatu beharko lukete. Esan nahi baita, pertsona-mailan, koherentziaz, euskaraz ulertzen duen guztiarekin, defektuz, euskaraz eginez, erdarara lerratu gabe, horretarako beharrik ez dagoen bitartean. Eta, erakunde-mailan, euskaraz soilik egin litekeen guztia, defektuz, euskaraz eginez eta hori ezinezkoa denean soilik erdaratara joz.

TRANSATLANTIKOA

Aldeko jarrerak biltzea eta gaitasuna ugaritzea eginkizun izan ditugu orain arte eta izan beharko ditugu aurreratzean ere, baina, gaur eta hemen, partida erabileran zentratu behar dugu. Autozentratu egin behar gara. Jokaera pertsonalak eta politika publikoak (eremu guztietakoak, ez hizkuntza-politikako sailak) erabileran zentratu behar ditugu, eta hor minimoen azpitik gabiltza. 2012ko Udaltop jardunaldiari "Nolakoa da gure (udalaren/enpresaren...) hizkuntza-politika? Begiratu, mesedez, euskara sailetik kanpo" izenburua jarri genion eta uste dut ongi jasotzen duela hizkuntza-politika egiteko moduak behar duen molde berriaren ideia.

Hiztunek eta hizkuntza-komunitateak, biek, eremu soziofuntzionalak irabazi behar dituzte (Zalbiderena da hitza), arnasa lasai hartuko badute. Katalanek dioten modura, "perquè el català sigui útil i necessari". Izan ere, "utila" eta "beharrezkoa" ez

dena... Hizkuntzaren erabilera sinbolikoaren zama askatzen hasi behar dugu eta erabilera funtzionalean zentratu behar dugula uste dut.

Hemen esandako gehienek Euskal Herriko bazter gehienetarako balioko dute seguruenik, baina tamaina ere balio inportantea da. Eta bai demografian (pertsonak, dimentsioa) eta bai politikan eta ekonomian (funtzioa, motorra) Bizkaia dago erdigunean. Eta uste dut ezaugarri horiek eta hizkuntza-adierazleek (kale-neurketa, ikerketa soziolinguistikoa eta beste) bultzatu behar dutela Bizkaia lemari heltzera eta norbide/paradigma berrian jartzera.

Esandakoak, gainera, ez dira txikiak. Pieza guztiak bildu eta transatlantiko handi bat osatzen dute. Itsasontzi txikia ekaitzetik portura ekarri dugula esan dugu lehen, baina, berriz ere itsasoratu nahi baldin badugu behintzat, lehenik bidaian sinetsi egin behar dugu eta, bigarrenik, itsasoaren baldintzez eta behar dugun itsasontziaren nolakoaz birtentsatu behar dugu. Bereziki Bizkaian, transatlantikoa Bilboko portuan baitago.